



Haur hezkuntza
INGURUMEN
HEZKUNTZARAKO
MATERIALAK

gure herria



nuestro pueblo

MATERIALES
DE EDUCACIÓN
AMBIENTAL

Educación infantil

Aurkezpena

Berriz ere jotzen dugu eskola-elkartera, eskola curriculumetan ingurugiroaren ikuspuntua sartzeko laguntza material berria eskaintzeko irakasleei.

Oraingo honetan, Lurralde Antolamendu, Etxebizitza eta Ingurugiro Sailak eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak "Gure Herria" izeneko unitate didaktikoa argitaratzen dugu Haur-Hezkuntzarako, hain zuzen, Ingurugiroarekiko Irakasbideen Hezkuntza eta Ikerketarako Ikastegiei (IIHII) etapa horretarako egin duten hirugarrena, aurrekoak "Izaki bizidunak (animaliak eta landareak) zaintzea eta errespetatzea" eta "Baliabide materialak" izan baitziren.

Aurreko unitate didaktikoak aurkeztu genituenean, azaldu zen funtsezko helburua horien saiakuntza sustatzea zela, bai eta material berriak gauzatzeko konpromisoa hartu duten irakasle-taldeak IIHIIletatik koordinatzea ere, saio gisa izan ondoren, oro har zabaldu ahal izateko.

Karpeta berri honek IIHIIek koordinatuta materialak egiteko mintegietan pixkana-pixkana lortzen diren emaitzak jasotzen ditu. "Gure Herria" ez da horrela sortu den unitate didaktiko bakarra, lehenago ere "Eguneroko Ekologia" argitaratu baitzen Helduen Hezkuntzarako (HH). Gaur egun beste irakasle-talde batzuk garatzen ari diren lanari esker material honen ostean beste batzuk ere etorriko direla bermatzen da etapa guztietarako.

Gure eskerrik beroenak eman nahi dizkiegu unitate didaktiko honen diseinu eta saiakuntzan ardura izan duten profesionalei eta, era berean, gonbidatu egiten ditugu Haur-Hezkuntzako maisu-maistrak erabili eta beste material berriak sortzen ahalegin daitezten, eskolak duen errealitatera moldatuago eta egokiagoak eskolan bertan ere ingurugiroaren alde jarduteko konpromisoa sustatu dadin gizarteko beste arlo guztietan bezalaxe.

LURRALDE ANTOLAMENDU,
ETXEBIZITZA ETA INGURUGIRO SAILBURUA

Patxi Ormazabal Zamakona

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE
ETA IKERKETA SAILBURUA

Inaxio Oliveri Albisu

INGURUMEN HEZIKETA ETA HAUR HEZKUNTZA

Inguruaren garrantzia
Haur Hezkuntzan 3

Ingurumen Heziketa
eta Haur Hezkuntza 3

“GURE HERRIA” UNITATE DIDAKTIKOA

Haur Hezkuntzako
eremuekin dituen loturak 7

Helburuak 8

Edukiak 9

Ebaluaketa 9

Materialaren inguruko
ohar batzuk 11

Baliabideak 12

Bibliografia 13

EKINTZA BILDUMA 17

FITXAK 37

aurkibidea

Inguruaren garrantzia Haur Hezkuntzan

Haur Hezkuntzako ikasleak eskolara datozkigunerako hainbat ezagupen, ideia eta esperientzia dituzten pertsonak dira. Jaio diren unetik inguruarekin harremanetan eraiki dituzte ezagupen guztiak. Ingurune horrek (kasu gehienetan familiak) eskaini dizkien estimulu, informazio eta "giroak", zerikusi handia izan dute denbora horretan umearengan eman den garapenean.

Etiketatik irten eta eskola mundura sartzean ikasleak bere ingurua zabaltzen du: bere adineko pertsonekin eta etxekoak ez diren helduekin harremanak ezarri, espazio eta objektu berriekin elkarlanean hasi, ekintza eta esperientzia berri asko barneratu,... guzti horrekin norberekiko eta munduarekiko ideiak eta ezagutzak zabaldu eta sakonduz.

Orainarte ezagutzen eta kontrolatzen zuen mundua, eta bertan jokatzeko zuen papera eta rola aldatu egiten da ikastetxera sartzean. Espazio seguru eta ezagun batetik irten eta, beste arau, objektu, antolakuntza eta egitura duen toki eta lankide berriei topo egiten du. Ingurune berri honetara moldatzeko pertsona bakoitzak pauso desberdinak jarraituko ditu, espazio eta materialak esploratuz eta ikertuz.

Etapa honetako irakaslegoaren lan garrantzitsu bat espazio hoietan izan beharreko giroa, ahalik eta atseginean egitea izango da, komunikazioa eta harrera erraztuko dituen, segurtasuna eta afektuentzat lekua utziko duena eta harreman pertsonalak kontutan izan eta zainduko dituen.

Guzti honekin gure ikasleak baloratua eta maitatua sentituko da, bere buruarekiko irudi positiboa indartuko du, esplorazio eta esperimentaziorako interesa piztuko zaio, inguruan gertatzen dena ezagutzeko jakinmina sortuz, bere interesari erantzuten dieten ekintzak burutuz, eta piskanaka-piskanaka haziz eta garatuz.

Ingurumen Hezkuntza eta Haur Hezkuntza

Tbilisiko konferentzian (1977. urtean), Ingurumen Hezkuntzaren helburuak ezarri ziren. Aurretiaz, hezkuntza honek kontutan izan behar zituen printzipio eta xedeak ere ezarri zituzten. Hauetariko batek esaten duenez, Ingurumen Hezkuntzak prozesu jarrai eta etengabea izan behar du, Haur Hezkuntzan hasi eta eskolan zein bizitzan zehar jarraitu beharrekoa.

Konferentzia horretan ezarritako helburuen azterketak, Haur Hezkuntzarekin dituzten loturak eta gure lana nola bidera daitekeen ezagutzeko argibideak emango dizkigu.

	Tbilisko helburuak	Haur Hezkuntza
KONTZIENTZIA	Giza talde eta gizabanakoei ingurumenari eta bere arazoei buruz kontzientzia hartzen laguntzea, gai horiekiko sentiberatasuna izan dezaten lagunduz.	Norberarekin erlazionatutako ingurumen arazoen kontzientzia hartzen joatea eta arazoekiko sentiberatasuna agertzea. Besteak beste, inguruko zikinkeria, zarrata eta gehiegizko kontsumoa, izan daitezke adin honetan lantzeko arazo txikiak.
EZAGUTZA	Gizatalde eta gizabanakoei alor ezberdinetan esperientzia jaso dezaten lagundu, ingurumenaren eta bere arazoen oinarritzko ezagutzak eskura jarritz.	Inguru hurbileko eta umearen bizitzarako esanguratsuak diren elementu fisiko, sozial zein naturalen ezagutza zabaltea, beraien artean ematen diren erlazio sinpleak landuz, eta bakoitzaren jokaerak eta eraginak aztertuz.
JARRERAK	Giza taldeei eta gizabanakoei ingurumenaren onerako izango diren balore eta sentimenduen etika eskura dezaten lagundu eta ingurumena hobetzen eta babesten aktiboki parte hartzera bultzatu.	Ingurumenaren babesean eta hobekuntzan aktiboki partehartzen lagunduko dieten jarrera eta baloreen eraikuntza hasia, ingurumenaren aldeko etikaren oinarri bezala.
GAITASUNAK	Giza taldeei eta gizabanakoei ingurumeneko arazoak ikusteko eta konpontzeko beharrezko gaitasunak eskuratzen lagundu.	Bizi duen munduarekiko galderak, zalantzak eta hipotesiak egiteko gaitasunak garatzea eta berauei erantzunak eman ahal izateko, informazioa bilatzeko prozedurak, behaketak eta esperientziak burutzea, erantzun geroz eta balizkoagoak emanez.
PARTAIDETZA	Giza taldeei eta gizabanakoei ingurumeneko arazoen ebazpenetan maila guztietan eta aktiboki partehartzeko aukera eman.	Umearen bizitza garatzen den guneetako (familia eta eskola) funtzionamendu eta kudeaketan partehartzeko gaitasuna garatzea, taldeko zein bakarkako ekintzetan partehartuz eta proposamenak eginez.

I.H.ko ALDEA programatik egokitua

Haur Hezkuntzan helburu hauek lortzeko biderik aproposena eskolako eguneko bizitza ondo planifikatzea da, giro atsegina lortzea, harreman pertsonal positiboak bultzatuz, ezberdintasunak aberastasun gisa ulertuz eta ingurumenaren alde jokatzeko barneratu beharreko hainbat jarrera normaltasunez umeen bizitzan hasiera batetik landuz, ohitura bihurtuz (garbitasun, higieine, materialen erabilera, espazioak eta toki ezberdinak zaindu, hobetu eta konpartitzea, izakien aniztasunaz jabetzea e.a.). Modu honetan gure lana planifikatuz, ingurua ikasteko, aritzeko eta ilusioa eta jakinmina sortzeko baliabide didaktiko eta metodologiko oso apropos bihurtuko zaigu eta ilusio eta ekintza gogo hori eskolaz kanpo ere familiaraino heltzea lortuko dugu.

INGURUGIRO HEZKUNTZARAKO MATERIALAK

g u r e h e r r i a



u n i t a t e d i d

unitate didaktikoa

a k t i k o a u n i

t a t e d i d a k t

i k o a u n i t a t

e d i d a k t i k o a

Haur Hezkuntzako Eremuekin dituen Loturak

Kontutan izan behar dugu beti etapa honen ezaugarriak nabarmenetako bat haurrek era global batean adierazten, erlacionatzen eta ikasten dutela.

Unitate hau lantzerakoan ez da eremu bakoitza lantzeko ekintza berezirik planteatu, guztiak elkarlotuta agertzen dira. Jarduera bat burutzen ari garenean eremu ezberdinetako edukiak lantzen ari gara.




1. EREMUA: NORTASUNA ETA AUTONOMIA PERTSONALA

Norberaren ezagutza zabaltzea eta sakontzea da eremu honen nahia. Ezagutza hori beste pertsonekin elkarlanean eta harremanetan sendotzen da.

- *Gorputza eta norberaren nortasuna:* Pertsonaren ezagutza ingurune sozial eta kultural konkretu batean ematen da (ezaugarri, ohitura eta osagai zehatz batzuk dituen herrian/hirian kasu honetan).
- *Jolasa eta mugimendua:* Gorputza inguruarekin harremanetan jartzeko baliabide bezala (psikomotrizitate saioak, zentzumenak erabiltzea ingurua behatzeko,...), guztia jolas bezala planteatuz eta norberaren mugimendu aukerak zabaltzeko eta hobetuz.

- *Autonomia eguneroko bizitzan:* Norbere harremanak beste esparru eta inguru batzuetara zabaltzea; talde lanak egin eta baloratzea; taldean ondo bizitzeko arauak ezartzea eta inguruaren hobekuntzan partehartzea.

- *Osasuna eta ongizatea:* Ingurumenaren eta inguru hurbilaren "osasunak" eta egoerak gure osasunean dituen eraginak (garbitasuna, lasaitasuna,...); norbera eta taldekideak gustora eta osasuntsu egotearen beharra sentitzea eta horretarako lan egitea (inguruaren hobekuntza, babesa, giroa zaintzea,...).



2. EREMUA: INGURUNE SOZIAL ETA FISIKOA

Ikasleak bere ingurune fisiko, sozial eta naturalaren ezagutza piskanaka zabaltzea du helburutzat, horretarako esperientzia anitzak eta ugariak erabiliz. Hasieran gure ikasleek inguru hori osotasunean, globalki ikusiko dute, poliki-poliki ezagutza eta umearen garapena aurrera joan ahala, inguruaren osagai eta elementuak bereizten joango dira eta beraien artean ematen diren oinarritzko harreman batzuk ulertzen.

- *Familia eta eskola ingurua:* Bi inguru hauek elkarlanean jarriko dira, biak dira oso esanguratsuak ikaslegoarentzat eta bien arteko lotura eta lan jarraipenak zentzua emango dio haurrak egiten duenari. Unitatean zehar ekintza batzuk etxekoekin egiteko izango dira (informazioa jaso, laguntza eskatu, behaketak etxean egin eta eskolara emaitzak eraman,...).

- *Ingurua eta gizarte bizitza:* Herria eta hiriaren antolaketari buruz lehen ideiak, arau eta antolakuntza baten beharra ikusiko dute; bertako zerbitzu eta lanbideak dituzten funtzioak, guztion lanaren beharra,...

- *Inguru naturala:* Herri eta hirian ditugun inguru naturalak behatuko dira lanean zehar, dauzkagun berdeguneak eta bertako biztanleak, beraien egoera eta arazak,... beti ere hobekuntza eta babespen ekintzak planteatuz eta ahal dugun neurrian burutuz. Inguruaren aldeko ekintzetan lehen pausoak emango dira, ingurumenaren aldeko jarrera eta balioak landuz.



3. EREMUA: KOMUNIKAZIOA ETA ERREPRESENTAZIOA

Norbere munduan ditugun sentipen, ideia, ilusio eta asmoak kanporatzeko, azalera-izteko eta besteei adierazteko komunikazio

tresna ezberdinak garatzea eta erabiltzea izango da eremuaren xedea.

- *Ahozko mintzaira:* Aho hizkuntza erabiltzen da hainbat informazio jasotzeko, lanak planifikatzeko, ikusitakoa bergogoratzeko, egindakoaren emaitzak jasotzeko, beti ere aho hizkuntza beste tresna bat bezala erabiliz.
- *Musika adierazpena:* Gaia lantzerakoan inguruan ematen diren soinu, hots eta zaratekin jolastu eta lan egiten da, entzunez, imitatuz, bereiztuz, e.a. Honez gain, zarata eta osasunak duten erlazioa lantzen da bereziki ekintza batean.
- *Gorputz adierazpena eta komunikazioa:* Gorputza ingurua ezagutzeko oso tresna baliotsua da, lehenengo erabiltzen dena hain zuzen. Unitatean zehar proposatzen diren ekintza batzuetan gure sentipenak adierazteko gorputz adierazpena eta jolas sinbolikoa erabiltzen dira.
- *Plastika eta ikusmenezko adierazpena:* Egoera konkretu batzuetan sentitzen duguna adierazteaz gain, plastikako ekintza ezberdinak proposatzen dira, batzuk inguruaren hobekuntza lanetarako eta beste batzuk egindako lan guztiak beste pertsona batzuei (guraso, irakasle, eskolakide,...) komunikatzeko erabiliz.
- *Matematika mintzaira:* Hainbat kontzeptu lantzen dira ingurua ezagutzeko ekintzak proposatzen direnean, konparaketak egitean (nolakoak dira etxeak, zein espazio erabiltzen dituzte kotxeek eta zein pertsonak, kale zabalak edo estuak, berdegune asko ala gutxi, e.a.) eta inguruko egoera aztertzean (zenbat paperontzi ditugu jolastokian, nahikoak diren ala ez baloratzean, zenbat gehiago jarriko ditugun pentsatzean, e.a.).



Helburuak

- Herri/Hirian ematen diren ingurumen arazo batzuetaz ohartzea.
*(Kontzientzia)
- Herri/Hiriaren egoera hobetzeko eta bakoitzak bere mailan arazoak konpontzeko, lan eta ekintzetan partehartzea.
*(Partehartzea)
- Herria eta hiriaren ezagutza zabaltzea. Osagai fisiko, sozial eta naturalez integraturik dagoela ohartzea eta beraien artean ematen diren oinarritzko harremanak lantzen hastea.
*(Ezagutzak)
- Hirian izaki bizidun ezberdinak daudela ohartaraztea eta kalitatez bizitzeko guztiok ditugula beharrian batzuk: janaria, babesa, taldearen beharra,...
*(Ezagutzak eta jarrerak)
- Gure eguneroko bizitzan sortzen ditugun hondakinez lehen hausnarketak egitea, hauek gutxitzeko lanetan aritzea eta herri eta hirietan hondakin horiekin egiten dena ezagutzea.
*(Ezagutzak, jarrerak eta partehartzea)
- Gai honen inguruan jakinmina piztea, galdera eta hipotesiak planteatuz, informazioa jaso, behatzeko eta esperimentatzeko tresna eta bide ezberdinak erabiltzea.
*(Gaitasunak)
- Pertsonen bizitzeko moduak, hiriarengan eta beste izakiengan duen eragina ezagutzea eta sortzen diren arazo batzuen inguruan pentsatu eta aritzea.
*(Jarrerak, ezagutzak eta kontzientzia)

Edukiak



JARRERAK

Inguru ezberdinak ezagutze-ko jakinmina.

Izaki bizidunekiko errespetoa, sentiberatasuna eta bizitza propioa duten izaki bezala baloratzea.

Gure ohiturak ingurunean duten eragina baloratzea eta kalte gutxien sortzen ahalegintzea.

Talde lanetan partehartzea.

Proposatzen zaizkien ekintzetan gogoz eta gustora partehartzea.

Beste pertsonak esaten edo adierazten dutenarekiko errespetozko jarrerak agertzea.

PROZEDURAK

Elkarrizketak eta taldean hitzegiten gaudenean beharrezko diren arauak ezagutzea eta erabiltzea.

Ekintzen antolaketan, beraien mailan, partehartzea, lan eta ardurak banatuz.

Arazo batzuen ebazpenerako behar diren neurriak martxan jartzea: hitzegin, tresna ezberdinak erabiliz informazioa eman, e.a.

Ikastetxe inguruan egiteko hobekuntzak proposatzea eta burutzeko jarduerak antolatzea.

Norberaren eta taldearen esperientziak adieraztea.

Ingurunea ezagutzeko zentzumenak erabiltzea.

Jarrera eta ohitura egokiak eta desagokiak bereiztea.

KONTZEPTUAK

Herriak eta hiriak: ezberdintasunak.

Herri eta hiri ezberdinak: ezaugarriak.

Hiriko biztanleak: landare, animalia eta pertsonak. Beraien beharrianak.

Hiriko espazio ezberdinak eta berauen funtzioak.

Hiriaren funtzionamendurako beharrezkoak ditugun lanbide eta zerbitzuak.

Hirietako arazo batzuk:

Hondakinak.

Zarata eta trafikoa.

Naturguneen egoera.

Hondakinak: Bereizketa, bererabilera eta birziklapena.

Zabor bereizketarako edukin-ontzi ezberdinak.

Ebaluaketa

Lan honen ebaluaketa irakaslea materiala aztertzen hasten den unean hasiko da. Fase eta momentu ezberdinak izango ditu. Hona hemen gaiaren inguruko orientabide eta ideia batzuk.



UNITATEAREN HASIERAKO EBALUAKETA

Unitatearen lehenengo analisia egiteko unean emango da. Gure ikasleentzat egokia den, erabilgarria, moldatu eta martxan jartzeko aukera daukagun aztertzen hasten garenean egiten ari gara lehenengo ebaluaketa. Kontutan hartzeko puntu batzuk adierazten dira lagungarri bezala:

Helburuak:

- Argiak eta egokiak dira nire taldearentzat?
- Zer gehitu edo gutxituko dut?

Edukiak:

- Interesgarriak al dira ikasleentzat?
- Zein eremu lantzen dute eta ze harreman ezartzen da beraien artean?
- Globalizatzaileak al dira?
- Hiru motetako edukiak lantzen al dira?
- Ezagunetik, ezezagunera zabaltzen dira eduki eta langaiak?

Metodologia:

- Ikasleek aktiboki partehar dezakete unitatea garatzeko antolakuntzan?
- Talde lana, bakarkakoa, bakoitzaren erritmoak errespetatzen al dira?

Beste puntu batzuk:

- Denboralizazioa, espazioak, ekintzak,... nola antolatuko dugu lana.

PROZESUAREN EBALUAKETA

Unitate honetan ez da ebaluaketarako ekintza zehatz eta zuzenik planteatzen, irakasle bakoitzak, lan honekin lortu nahi dituen helburu eta edukiak kontutan hartuz, finkatu beharko du zein momentu eta zein ekintza suertatuko zaizkion aipose-nak. Dena den, hasierako ekintzak umee-k gaiari buruz dakitenaz informazioa jasotzeko baliagarri izango ditugu, komunika-zio ekintzak oso aproposak izango dira emandako ideia aldagetak ezagutzeko eta lanean zehar ere, aurki ditzakegu une ego-kiak umeen jarrerak behatzeko, egiten dituzten komentarioak jasotzeko eta oro-korrean beraien artean piztu den interesa eta zirrarak ezagutzeko.

Haur Hezkuntzan erabil daiteken teknika-rik egokienetarikoa behaketa zuzena eta sistematikoa da. Behaketa hauek unitate honetan espazio, ekintza eta lan oso ezber-

dinetan egin daitezke (irteera prestatu edo burutzerakoan, psikomotrizitate saioan, bakarkako edo taldeko lanean, e.a.). Egoera eta momentu ezberdin horiek informazio asko eskainiko dizkigute eta berauek jasotzeko tresna oso aproposak behaketa taulak ditugu. Bakoitzak balora-tu nahi duena aurretiaz pentsatu beharko du eta jaso nahi diren informazioak bertan idatzi ondoren kontrol orri interesgarri bihurtuko zaizkigu.

Gelako diario edo koadernoan ere tresna egoki eta aprobetxagarria izango dugu, egunean zehar sortzen diren hainbat egoe-ra idatzi eta gogoratzeko, ondo edo txarto atera zaiguna bertan isladatzeko eta hu-rrengo batean beste modu batean lan hori planteatzeko.

INGURUAREKIKO HOBETUNTZEN EBALUAKETA

Ingurumen Hezkuntzan oinarritua dagoen lan batek, eduki eta lorpenez aparte, ingu-ruaren hobekuntzaren alde egindako ekintzak, landutako jarrerak, ezarritako ohiturak e.a. ere ebaluatu behar ditu. Beraz, kontutan hartzekoak izango diren puntu batzuk azaltzen zaizkizue adibide bezala:

Espazioak:

- Pasilo, gela, jolastoki eta eskola ingurua garbiagoak daude.
- Espazio hoietan somatzen den "giroa" hobetu egin da, lasaiago mugitzen dira, bertako ekipamendua gehiago errespetatzen da, e.a.
- Toki hauetan eman diren hobekuntza ekintzetan ikasleek gustora eta aktibo-ki parte hartu dute.
- Espazio batzuk berreskuratu eta hobetu egin dira, landareak jarritz, une natu-ralak sartuz, e.a.

Materialak eta hondakinak:

- Gelan sortzen diren hondakinak bereizten dituzte eta dagokion edukin-ontzian jartzen dituzte.
- Hondakin gutxiago sortzen da, materialak hobeto aprobetxatzen dituztelako.
- Material ezberdinen berrirabilera gehitu egin da, konponketa txikiak egiten dituzte.
- Paper birziklatua normaltasunez erabiltzen dute.

Izaki bizidunak:

- Animalia eta landareenganako errespetoa, babesa eta zainketa hobetu egin da.
- Beste pertsonetikiko errespetoa eta elkar ulermena somatzen da (fisikoki ezberdinak direnekin, sexu ezberdinekoekin, beste hizkuntza bat erabiltzen dutenekin,...).



Materialaren inguruko ohar batzuk

Aurkezten zaizuen materiala oso zabala da, orokorrean gure herrialdeko edozein eskolatan lan egiteko pentsatua izan da, irakasle bakoitzak bere egoera konkretura moldatu eta erabiltzeko prestatutakoa. Gaia ere horregatik planteatzen dugu Herri/Hiri bezala, gure ingurua zein den kontutan hartuz, modu batez edo beste batez landu ahal izango dugulako.

Lan proposamen honen hasieran, umearen inguru hurbilena eta ezagunena aztertze-tik hasiko gara, bere etxea eta kalea hain zuzen ere, bere burua inguru zabal horretan kokatzen hasteko eta lehen azterketak ezagunen dituen esparruetatik eginez abiatzeko.

Bigarren pauso bezala, herri gehienetan ematen diren arazo batzuk aztertzen dira, zaborrak eta zarata gehien bat, adin hone-tako ikasleentzat adierazgarrienak izan daitezkelako, eta herriko izaki bizidunen egoera.

Eta azkenik, arazo horien aurrean gure ikaslegoak eta ikastetxeak konpromiso txikiak hartzeko lan eta ekintzak agertzen dira, beti ere umeentzat esparru esanguratsuena aukeratuz, egunero mugitzen diren espazioei dagozkienak, etxea, eskola esparrua (barnekoa zein kanpoko) edo herriko parke eta jolaslekua.

Adinaren aldetik, HHko 2. zikloan lantzeko prestatu izan da, baina trataera ezberdina izango du maila bakoitzean eta irakaslegoak helburuak eta edukiak egokitu beharko ditu, ekintzak moldatu, eta egoera konkretu bakoitzean erabiltzeko prestatu. Beharrezko egokitzapenak eginez gero, Lehen Hezkuntzako 1. zikloan ere erabilgarri gerta daitekeen materiala dela pentsatzen dugu.

Lan honek izan dezakeen iraupena ere bakoitzak erabakitzea da. Batzuentzat ikasturte osoko lana izan daiteke, esperimentzia eta ohitura batzuk eguneroko bizitzan integratuz; beste norbaitek une jakin batean burutzeko ekintza berezi bezala planteatzea dezake, interesgune moduan landuz adibidez.

Azaltzen diren ekintzak, atal ezberdinetan banatu dira nolabait ordenatzeagatik, baina landu ahala ikusiko dugunez, ekintza berberak multzo ezberdinetako gai eta edukiak tratatzeko balio dezake, batetik besterako bereizketa ez delako hain zehatza.

Bestalde, ekintza bakoitzean ariketa edo proposamen bat baino gehiago ager daiteke.

- **Kokatzen:** Hasierako ekintzak dira eta landu eta mugituko garen espazioan bakoitzak bere burua kokatzea dute helburutzat, egunero bizi dugun espazio horretaz lehen behaketak egitea, errealitate horretaz ohartaraztea eta arreta jartzea.

- **Ezagutzen:** Gure herriko toki bereziak ezagutzeko ekintzak proposatzen dira hemen, beste herri batzuekin konparazioak egitekoak, psikomotrizitateko saioetan egiteko jolasak, e.a.

- **Arazoak aztertzen:** Aurreko ekintzetan herri eta hirietan ematen diren arazo batzuk dagoeneko komentatu eta landuta izango ditugu. Multzo honetan bi arazo mota landuko dira bereziki, ikasleentzat hurbilenak edo lantzeko errezenak izan daitezkeenak: zaborrak eta hondakinak alde batetik eta zarata bestetik.

- **Beste izaki bizidun batzuk ezagutzen:** Multzo honetan proposatzen diren ekintzen bidez gure ikaslegoa, herri eta hirietan pertsonen gain beste izaki bizidun batzuk ere badirela ohartaraztea lortu nahi dugu. Proposatzen diren ekintzetatik bata irteera bat da eta beste karpeta honen atzeko aldean dituzuen hiriko bi txarteekin burutzeko lana: behatu, hitzegin, elementu ezberdinak izendatu eta harremanetan jarri, e.a.

- **Gure neurriko konponbideak:** Haur Hezkuntzako ikasleek inguru hurbilenean egin ditzaketen hobekuntza txikiak dira. Herria esparru zabalegia denez eskola esparruan, egunero bizi duten espazio horretan, egin ditzaketen lan txikiak proposatzen dira, gehien bat animalia eta landareentzat toki aproposak prestatuz, ingurua hornitu eta atseginagoa eginez guztiontzat.

- **Komunikatzen:** Egindako lan guztiak guraso, beste pertsona heldu batzuei eta eskolako kideei azaltzeko ekintza ezberdinak proposatzen dira atal honetan. Ekintza guztiak bateratuko dituen gela-ko "jaia" izango da. Bi helburu bereiz ditzakegu komunikatzen deituriko atal honetan, alde batetik egindakoa berragoratu eta adieraztekoak, eta bestetik proposamen berriak egin eta berauek burutzeko laguntza eskatzekoak.



Baliabideak



- **Ipuina:** Zazpi txartelez osatua dago eta koloreztatuta duzue material honen atzekaldean.

Gidoia 20. orrialdean aurki dezakezue.

Pertsonaiak hiriko biztanle ezberdinak dira, kasu honetan animaliak eta pertsonak.

Bere helburua hondakinen bereizketaz lehen ideia izatea da eta honekin batera garbitasunaren behar eta garrantziaz jabetzea.

Lan honetan ipuinarentzat agertzen den testua lortu nahi den helburuaren ideia emateko aukeratu den arren, irakasle bakoitzak egoki dezake bere taldearen ezaugarrietara, adin, hizkuntza maila, gaiaren ezagueraren mailara, e.a.

- **Antzezpenak:** Behar duzuen materiala 41. orrialdean dago.

Materialaren artean antzezpena egiteko ipuineko pertsonaien marrazkiak agertzen dira. Era askotara egin daiteke baina hemen aukeratu dena ume bakoitzak bere pertsonaiak margotu, moztu eta hatzamarretan sartuz jolasteko txotxongilo txikiak dira. Komunikazio ekintzen atalean erabiltzeko proposatzen dira, guraso eta beste taldeen aurrean egindakoa azaltzeko eta landu nahi dugun mezua beste esparru batzuetara zabaltzeko.

- **Ormirudiak:** Material honen atzekaldean aurkituko dituzue. Bi zatitan banatu ditugu adin honetako ikasleekin lana errazteko. Lehenengoz txartel bat landuko dugu (irakasle bakoitzak ikusiko du zein datorkion hobeto hasteko) eta gero bigarrena aterako da. Osagarriak dira eta biekin batera herriaren ikuspegi zabala-go bat jaso ahal izango dugu.

Hiri edo herri handietako hainbat ezaugarri agertzen dituztenez, bertatik jaso daitezkeen informazio eta lanerako gaiak ugariak dira (zerbitzuak, lanbideak, garraioak, arazoak,...).

- **Fitxak:** 38, 39, 40. orrialdeetan daude.

Ipuina landu ondoren buru daitezke. Hondakinen bereizketa, zikinkeria, eta pertsonen jarrerak dira bereziki lantzen dituzten arloak.

Paisajearen behaketa oinarritzko bat egiteko ere fitxa bat aurkituko duzue 37. orrialdean.

- **Irteerak:**

Unitatean zehar bi irteera egitea proposatzen da. Irakasle bakoitzak ikusiko du hauek burutzeko dituen aukerak edo zailtasunak. Ekintza hauen inguruan ohar batzuk: irteerak beti dira pozgarri gure ikasleentzat. Gure lana irtenaldiaren helburua argitzea izango da, ikaslegoari egingo dena edo aurki dezakeguna aldeztatik azaltzea (nora joango garen, zertara,...), beharrezko materialak prestatzea, beste pertsona batzuen laguntza eskatzea, e.a.

- **Esperimentoak:**


Ikasleentzat oso gustokoak, egiteko errazak eta hainbat jarrera lantzeko egokiak direlako proposatzen dira. Hemen adibide bezala proposamen batzuk egiten dira baina aukera gehiago ere badaude, beti ere adin honetako ikasleentzat moldatu beharrekoak badira ere. Bibliografiaren atalean ideia gehiago hartzeko liburuen zerrenda aurkituko duzue.

- **Erakusketak:**

Lana burutzerakoan sortu diren materialekin egin daiteke; tresna ona bilakatzen da beste pertsona batzuei egindakoa azaltzeko, edo irakasleak berak, haurrek jasotakoaz gehiago jakiteko.

- **Argazki, bideo eta postalak:**

Ikasleen eskakizunei aurrea hartuz, gure inguruko argazkiak, geuk grabatutako irudiak edo dendetan saltzen dizkiguten postalak tresna egoki bihurtzen zaizkigu gelan erabiltzeko. Gai honetarako behintzat bilduma txiki bat izatea ondo etorriko zaigu, ikasleen jakinahiari erantzuteko, beraien arteko zalantzak argitzea, liburutegian edo leku ikusgarrietan jarritz inguru hurbileko beste ikuspegi batzuk izan ditzagun.



Bibliografia



"Look around the town" An environmental education project

The tidy Britain group. 1980.

"Descubrir el medi urb  " Barcelona mostrada als infants

J. Munt  ola. Ajuntament de Barcelona.

"La ciudad: did  ctica del medio urbano"

Revista IBER. GRA   Educaci  n.

"Programa de educaci  n en valores para la etapa infantil"

AAVV. Ediciones Aljibe. Colecci  n Biblioteca de Educaci  n.

"Orientaciones did  cticas para la Educaci  n Ambiental en E. Infantil"

Programa ALDEA. Junta de Andaluc  a.

"Eco-auditor  a escolar"

Asun Fern  ndez Ostolaza. Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Zentrala.

JAKINGARRIAK Aldizkaria

Eskoriatzako Irakasle Eskola.

ESPERIENTZI EZBERDINAK EGITEKO IDEIAK EMATEN DITUZTEN LIBURUAK:

"50 cosas que los ni  os pueden hacer para salvar la tierra"

The earth works group. EMEC  .

"La naturaleza explicada a los ni  os en pocas palabras"

Jean Potter. PAID  S.

"Biolog  a para ni  os y j  venes"

Janice VanCleave. LIMUSA-Noriega Editores.

"50 cosas que t   puedes hacer para proteger a los animales"

Ingrid Newkirk. BLUME.

"Experimentos cient  ficos sencillos con materiales comunes"

Muriel Mandel. DIANA.

INGURUGIRO HEZKUNTZARAKO MATERIALAK

g u r e h e r r i a



e k i n t z a b i l

ekintza bilduma

d u m a e k i n t

z a b i l d u m a

e k i n t z a b i l

d u m a e k i n t

Gai honi sarrera eman eta umeengan gai berri baten inguruan lan egiteko motibazioa sortzeko aukera eta aitzakia mordoak bila daiteke. Umeek egindako komentario batetik hasi, edo historio bitxiren bat kontatu, ekintza berezi bat antolatu, e.a.



NON BIZI NAIZ? _____ 1. ariketa

Ekintza Elkarriketa.

Jarduera Talde handian hasieran eta bakarka ondoren.

Helburua Norbere inguru hurbilarekiko behaketa eta adierazpenak egitea.

Garapena Ikasle bakoitza bere etxe eta kaleari buruzko adierazpenak egiten joango da. Altua/bajua den etxebizitza, kalea zabala/estua den, zer dagoen inguruan: parke, plaza, trafiko handia, lantegiak, edo beste gauza/espazio bereziren bat.

Bere kalearen/auzoaren marrazkia egitea proposatuko zaie eta bertan irakasleak umearen azalpenak idatziko ditu. Honek jakitera emango digu ikasle horrentzat esanguratsuen dena, non/nondik mugitzen den, hiri edo herriarekiko zein ezagupen duen, zer den interes gehien pizten duena berarentzat, e.a.

Lehen adierazpen hauek, gure lana nondik bidera dezakegun jakiteko argibideak emango dizkigu eta unitate honetan proposatzen diren hainbat ekintza antolatzeko ideiak eman edo besteren batzuk sortzeko beharra ikusiko dugu.

Materiala Marrazkiak egiteko beharrezkoa dena.

HELBIDEA IKASTEN _____ 2. ariketa

Ekintza Elkarriketa eta banakako memorizazio lana.

Jarduera Bakarka eta talde handian.

Helburua Ikasle bakoitzak bere helbidea ezagutzea eta herrian dagoen aniztasunaz ohartzea.

Garapena Helbidea ezagutzen ez badute, etxean galdetzea eta paper batean idatzita ekar dezatela eskatuko zaie. Asanbladan/Korroan gaudenean kaleen izenak irakurriko ditugu eta zeintzuk bizi diren kale berdinean komentatu, etxeen altueraz hitzegin eta nolakoak diren esan, hiri handietakoak bezalakoak diren ala ez, bakoitzaren etxeko solairuan zenbat etxebizitza dagoen (ezker, eskuma, ala gehiago), auzokideak ezagutzen dituzten ala ez, eta abar.

Materiala Ez dugu material berezirik behar, baina kontutan izan ikasle bakoitzak bere helbidea ikasteko denbora beharko duela eta korroan gaudenean ekintza hau behin baino gehiagotan errepikatu beharko dugula.



HERRI EZBERDINAK EZAGUTZEN DITUGU _____ 3. ariketa

Ekintza Talde handiaren aurrean azalpenak ematea.

Jarduera Talde handian.

Helburuak Herriari/Hiriari buruz dakitena azaltzea.

Herri txiki eta hirien arteko konparaketak egitea.

Kokaleku ezberdinak izan ditzaketela ohartzea (mendi inguruetan, ibai ertzean, itsas inguruan,...).

Gure inguruan ezagutzen ditugun herri eta hiri batzuei buruzko azalpen eta konparaketak egitea, beti ere beraientzat zerbaitengatik esanguratsuenak direnak, oporretan joaten direlako, aiton-amonak bertan bizi direlako, e.a.

Naturgune eta hiriguneen arteko konparaketa txikiak egitea.

Garapena Unitate honen hasieran gure herri/hiriari buruz hitzegindakoa gogoratuz hasiko gara: etxebizitzaren ezaugarriak gogoratuz (altuak, baxuak, etxebizitza bakarrekoak,...), auzoetan dauden zerbitzuak izendatuz, une berde eta jolastokiak ditugun ala ez komentatuz, etab.

Ondoren eta ezagunena aztertu ostean, irakasleak herri eta hiri ezberdinetako argazkiak erakutsiko ditu eta denon artean konparaketak egingo dira, antzekotasunak eta berezitasunak bilatuz adibidez. Elkarrizketa honetan, umeei ezagutzen dituzten beste toki ezberdin batzuekin erlazioak egingo dituzte (oporretara joaten direnekoak, aiton-amonen herrietakoak, e.a.), eta hitzegindako guzti honetatik bakoitzak izan ditzaken abantaila eta desabantaila batzuk aztertzerantz iritsiko gara: hirietako arazo batzuk (trafikoak sortzen dituen arazoak, zaratak, keak, kaleetan pilatzen diren zikinak eta zaramak, eta antzerakoak), herri txikietan eman daitekeen zerbitzu falta (eskolara joateko autobus beharra, adin berdineko ume gutxiago, umeentzat oso adierazgarri diren "denda" gutxiago izatea, e.a.).

Materiala Argazkiak eta propaganda irudiak erabil ditzakegu (turismo bulegoetan lortzea posible izaten da).

HERRIA ERAIKITZEN _____ 4. ariketa

Ekintza Ormirudi bat osatzea.

Jarduera Taldeka.

Helburua Hiria osatzen duten elementu eta arazoez jabetzea.

Garapena Modu ezberdinetara egin daiteke ariketa: aldizkarietatik moztutako argazkiak erabiliz edo umeei egindako marrazkiez ormirudi bat osatuz. Modu batean zein bestean egin, herri eta hirietan elkartzen diren elementuen aniztasunaz konturatzea lortu nahi dugu. Irakasleak kontutuan izan beharko du arazoak islatzea ere beharrezkoa dela eta umeei honetaz ohartu behar dutela.

Materiala Aldizkariak, paper handia, kola, margo eta errotulkiak.

HOBETO EZAGUT DEZAGUN _____ 5. ariketa

Ekintza Herrira irteera edo bertako bideoa ikustea.

Jarduera Talde handian.

Helburua Herri/hiriko behaketa egitea.

Garapena Ariketa honetan bi aukera eskeintzen dira, irteera egitea edo hau zaila ikusten bada herriko irudiak bideoz ikustea.

Irteera: Herri edo hiriko ikuspegi ona duen toki batera irteera bat egingo da, bertatik behaketa ezberdinak egingo ditugularik. Denbora eta lekua proposa izanez gero oso ondo egongo litzateke momentu horretan ikusten dutena paperera pasatzea, normalean ikusten dutenaren ikuspegi oso ezberdina jasoiko dute eta. Marrazkiak egitearen ordez, grabadora bat ere lagungarri izango litzazuke, gu galderak eginez joan eta beraien erantzunak jaso, gero gelan bergogoratzeko; bideo edo argazki kamara ere baliabide aproposak izango zaizkigu, irteeraren ondoren, gelan, ikusitakoaz lan egiteko.

Ekintza hau egitea posible balitz horra hor kontuan izateko zenbait ideia:

- herri/hirian tipikoak diren eraikuntza edo espazio batzuk behatzea.



- neurriak konparatu, eraikuntza ezberdinak, pertsonak, oinezkoek erabiltzen duten espazioa eta kotxeek erabiltzen dutena, e.a.
- ikusten diren berdeguneak, jolasteko eta lasai egoteko espazioak dauden ala ez, ibaia ikusten den, e.a.
- hiria "zikintzen" duten jarduerak (tximiniak adibidez, garraioak,...).

Paisajearen behaketa errazteko espazio horretan bete daitekeen fitxa bat proposatzen da 37. orrialdean.

Bideo emanaldia: Irteera egitea ekintza interesgarriagoa bada ere, kasu askotan zailtasun handiak izaten direla badakigu. Hori dela eta, kontutan izateko beste aukera hau proposatzen da. Irakasleak herri horretako leku esanguratsuak filma ditzake; toki berdinak ikuspegi ezberdinetatik grabatuz, ikasleekin harremanak dituzten espazio eta pertsonak agertuz, kalean lan egiten duten pertsona ezberdinen irudiak eta hizketaldiak ageriz, herrian ematen diren arazo batzuk filmatuz, e.a.

Materiala Ekintzaren arabera, papera, margoak, grabogailua, argazki edo bideo kamara, paisajearen fitxa.

HERRIAN MURGILTZEN _____ 6. ariketa

Ekintza Psikomotrizitate saioa.

Jarduera Talde handian.

Helburua Norberaren mugimendu eta jolasaren bidez, hiri sistemak sortzen dituen sentsazio eta egoera ezberdinak adieraztea.

Garapena Psikomotrizitate gelan hiri bat eraikitzea da proposamena eta ondoren bertan mugitu eta jolastea, era zuzendu edo librean (irakasleak hobeto ikusten duen moduan). Lortu beharko genukeena altuera eta espazio handien itxura ematea izango litzateke, umeak eraikuntza eta espazio horietan barrena murgiltzeko modua izatea, eta "handitasun" sentsazioa bizitzea. Beraiek baino altuago diren eraikuntzak osatu, kaleak marraztuz (paper ezberdinez egin daiteke, egunkari orriak, aldizkariak) eta funtzio ezberdina betetzen duten lekuak markatuz. Bertatik zirkuito ezberdinak osa daitezke (garraio berezientzako kaleak, oinezkoentzat esparruak,e.a.), eta horietan zehar mugituz jolastu.

Materiala Psikomotrizitateko materiala, kartoizko kutxa handiak, egunkari eta aldizkari orriak.

NEUK SORTUTAKOA _____ 7. ariketa

Ekintza Eraikuntza txokoan lan librea.

Jarduera Bakarka edo talde txikietan.

Helburuak Ikasle bakoitzak bere herriarekiko dituen sentsazio eta ezagutzak jolasaren bidez adieraztea.

Errealitatearekin konparaketak egitea.

Garapena Gelan bertan eraikuntzen txokoa ere honetarako erabil daiteke gaia lantzen ari garen bitartean. Elementu ezberdinak sar ditzaten ahaleginduko gara: biztanleak, espazioak, funtzio ezberdina betetzen duten eraikuntzak, arazoak, e.a.

Herriko planoaren marrazkia paperean markatuta izanez gero, bertan agertzen diren espazio, kale, etxebizitza eta edificzio batzuk eraikuntza horien bidez kopia ditzakegu.

Materiala Eraikuntza jolasak.

arazoak aztertzen,... NOLA BIZI GARA?

ZABORRAK - HONDAKINAK



IPUINA _____ 8. ariketa

Ekintza Ipuina**Jarduera** Talde handian.**Helburuak** Hirian sortzen den zaborraz eta zikinkeriaz hitzegitea.

Berrerabilpen eta birziklaia gaia lantzen hastea.

Zaborren arazoaz jabetzen hastea (zenbat zabor sortzen dugun eguneroko ekintzetan).

Bereizketaren garrantzia ezagutzea.

Kontenedore ezberdinak zertarako diren jakitea.

Gelan eta ikastetxean (etxean ahal den neurrian ere) bereizketa egiteko ohitura eta jarrerak lantzea.

Garapena Ane eta Julenen ipuina kontatuz hasiko gara.

Zazpi txartelez osatua dago eta hemen azaltzen den gidoia landu nahi denaren ideia bat emateko da batez ere. Umeei kontatuko zaiena irakasle bakoitzak haien egoerara egokitu beharko du: hizkuntza maila, adina, edukiak egokitztea, e.a.

IPUINAREN TESTUA

1. irudia

Hauek Ane eta Julen dira.

Ane eta Julen oso jatorrak dira. Hainbat gauza ikasten ari dira, eskolan, etxean, lagunekin, baina badago oraindik ondo egiten ez duten gauzatxo bat.

(Irakasleak galdera bezala: Zer pentsatzen duzue izan daitekeela?... eta umeek zer esaten duten entzungo dugu, ea ohartzen diren inguru hori zikina dagoela, e.a.)

Beraien herriko animaliak oso kezkatuta daude Ane eta Julenen jokaerarekin.

- Baina zer pentsatzen dute neska-mutil hauek? - galdetzen dute oso haserre txakurrak eta katuak.

- Zerbait egin beharko dugu - esaten dio katuak txakurrari. Bestela herri hau zakarrez bete eta hondatu egingo dugu.

**2. irudia**

Herriko parkean bizi den kirikinoa ere oso haserre dago.

- Baina ze demontre! - esaten du. Ez al dute ikusten zikin horiek zakarrontzira joan behar dutela eta ez lurrera? Zer egin daiteke neska-mutil hauekin?

**3. irudia**

Eta konponketak bilatu nahian, hiru animaliak hontzarengana joan dira eta berarekin hitzegin dute. Gertatzen dena azaldu ondoren, hontzak ideia ona eman die.

(Irakasleak galdera bezala: Zer pentsatzen duzue esan diela hontzak beste animaliei? Joan daitezela ideiak ematen, konponketa ezberdinak bilatzen, e.a.).

**4. irudia**

Ba,... hontzak emandako ideiei jarraituz, txakurra, katua eta kirikinoa zarama eta hondakinak biltzen hasi dira herrian zehar eta Ane eta Julenen etxe aurrean pilatzen. Toki guztietatik jasotako gauzak botatzen ari dira bertan: paperak, latak, kutxak, plastikoak,...

**5. irudia**

Piloa geroz eta handiagoa da, lan izugarria egiten ari dira animalioek. Ane eta Julen berriz etxeko leihotik begira daude. Ezin dute sinestu ikusten dutena.

- Baina ze arraio egiten ari dira animalia hauek hemen! - esaten dute kezkatuta. Gure etxea zikintzen ari dira! Zertan ari zarete? - galdetzen dute.

Kirikinoak hauxe esaten die: Begira, zuek zaramak lurrera botatzen jarraitzen duzuen bitartean, guk zuek botatako guztia hemen pilatzen jarraituko dugu.

- Baina nora bota behar dira ba hondakin horiek? - galdetzen dute Ane eta Julenek.

- Etorri gurekin eta ikusiko duzue - erantzuten die kirikinoak.

6 irudia

Eta horrela, Ane eta Julen hiru animaliekin batera hondakinen edukinontziak dauden lekuraino joaten dira.

- Begira - esaten die katuak. Berde honetan beirazko ontziak botako ditugu. Beste handi honetan paperak eta kartoiak, hemen etxeko hondakinak,... eta kalean zerbait jaten duzuenean, paperontzian.

Horrela gure herria txukunago, garbiago eta atseginago izango da eta denok disfrutatuko dugu gehiago, osasuntsuagoa izango da denontzat.

- Eskerrik asko animalio! - orain badakigu zer egin behar dugun hondakinekin. Bale!

7. irudia

Eta aurrerantzean Ane eta Julen gogor saiatzen dira animaliek erakutsitakoa jarraitzen, bai etxean, eskolan zein kalean. Baina noski, hainbat gauza egiteko laguntza behar dute, eta beraiek baino nagusiagoak direnei eskatzen diete: gurasoei, anai-arrebei, eta horrela, hondakinak ondo bildu eta sailkatu ondoren, bakoitza bere tokian uzten dute berriz ere erabili eta aprobetxatu ahal izateko.

Ipuin honekin hainbat galdera planteatu daitezke, zalantzak sortu ikasleengan, hipotesiak egin eta baieztatu edo ezeztatu, eta aurrerantzean gelako lanean hainbat eduki lantzeko eta ekintza ezberdin ugari burutzeko aukerak emango dizkigu.

Ikastetxe eta gela bakoitzaren egoera eta abiapuntua ezberdina izango denez, norberak pentsatu beharko du zein bidetatik hasi edo/eta jarraitu. Hona hemen adibide eta proposamen ezberdin batzuk:

- Gure gelan papera beste hondakinetatik bereizten ez badugu oraindik, hortik has gaitezke. Gelan bertan erabilitako paper eta kartoientzat beste edukinontzi bat jarri, ikasleei zergatia modu ulergarri batez azaldu, bertara botako ditugun soberakinek nolakoak izan behar duten arautu (ez ditugu botako oraindik beste zerbaitetarako erabil daitezkeen paper eta kartoiak, adibidez) eta beteta dagoenean paper edukinontziraino eramateko txandak antolatu, gelako ohitura bezala finkatuta geratu arte.
- Gelako eta ikastetxeko materialen jatorriaz ikerketak egin.

Haur Hezkuntzako ikastetxeetan hainbat material berrerabiltzen dugu. Honetaz gure ikasleak jabetzen hasteko "ikertzaileen jolasa" asma daiteke. Hasiera batean, gelan ditugun gauzak aztertu eta horietatik zeintzuk diren berrerabiltzekoak ikertuko dugu. Adibidez, kartoizko kutxak: zer gordetzeko egin ziren kutxa horiek? galde dezakegu. Nola heldu ziren gelaraino? Nork ekarri zituen? Beste zerbait gordetzen al zuten hona ekarri aurretik?... Eta orain gure gelan: Zertarako erabiltzen ditugu? Zerbait aldatu al da? Zer gauza erabili ditugu aldaketa hori emateko?, e.a.

Honen guztiaren ondorioak umeei batera komentatzea beharrezkoa da. Ikus dezatela gure inguruko hainbat gauzak iraupen luzea eta erabilpen ezberdinak izan ditzaketela hondakin bihurtu arte. Eta azkenean, hondakin direnean ere bere lekua eta bere funtzioa izan dezaketela adierazi behar zaie, berrerabili eta birziklatu hitzen esanahia beraiei mailan ulertzeko bideak eman behar zaizkie.

Materiala Ipuinaren irudiak.



ZER ETA NON? _____ 9. ariketa



Ekintza Zaborra eta edukinontzi ezberdinak bereizteko fitxa.

Jarduera Talde handian hitzegin ondoren, bakarka fitxa egin.

Helburua Edukinontzi ezberdinak bereiztea eta bakoitzean zer sartu behar den jakitea.

Garapena Banaka fitxa egiten hasi aurretik gai honi buruz orain arte egin duguna bergogoratuko dugu, etxeetan bereizketa ohiturak dituzten ala ez galdetu, edukinontzi ezberdinak eskola inguruan edo etxe inguruan ikusi dituzten, ea nozbait erabili izan dituzten, beraien koloreez hitzegin, desberdintasunaren zergatiaz komentarioak egin, ipuinean ikusitakoa bergogoratu, e.a.

Horretaz guztiaz hitzegin ondoren, "Zer eta Non" deituriko fitxa egitea proposatuko zaie umeei. Lehenengo, bakoitzari dagokion kolorea eman beharko diote, eta ondoren bakoitzean sartu behar den hondakinarekin gezi baten bidez lotzeko eskatuko diegu.

Materiala 38. orrialdeko fitxa.

GURE JOLASTOKIA AZTERTZEN _____ 10. ariketa

Ekintza Jolastokiaren behaketa

Jarduera Talde handian.

Helburua Gure ohiturak aztertzea.

Garapena Jolastokiaren behaketa egin nahi dugu, garbi eta txukun dagoen aztertu, hobeto egon daitekeen pentsatu eta horretarako zer egin beharko den zehaztu eta martxan jarri. Behaketa hauek bi momentu ezberdinetan egin daitezke: goizeko lehen orduan edo garbi egoten den unean eta zikin dagoenean (bazkal ostean, atsedendian,...). Egoera ezberdin horiek konparatu ondoren, esparru horretan dauden zakarrontziak zenbatuko ditugu denon artean eta asko ala gutxi diren galdetu eta komentatuko dugu. Taldearen ustez nahikoak badira, zergatik geratzen den zikin galdetuko zaie, ze konponbide bila dezakegun.

Ariketa honetatik sor daitezkeen ekintza posibleak:

- zakarrontzi gehiago jartzeko eskaria zuzendaritza taldeari;
- guk egitea zakarrontziak kutxekin eta toki ezberdinetan jartzea;
- jolastoki eta inguruak garbi mantentzeko kanpainatxo bat eskolan egitea, marrazkiak jarritz pasiloetatik eta azalpen txikiak emanez beste geletan.

Materiala Aukeratzen den ariketaren arabera, kutxak beharko ditugu, kanpaina burutzeko paper, margoak, eta argazki kamara ere erabil daitezke beste taldeen aurrean adierazpenak egiteko.

ETA HERRIKO KALEAK ZER? _____ 11. ariketa

Ekintza Ikastetxe inguruko kaleak eta orokorrean herri/hiriko kaleen behaketa.

Jarduera Familiarekin burutzeko ariketa.

Helburuak Etxekoek eskolan egiten ari garen lanari beste espazio, denbora eta egoera batean jarraipena ematea.

Herriko espazio ezberdinak ezagutu eta egoera ezberdinak konparatzea.

Garapena Etxekoekin egiteko ariketa izan daiteke. Umeei proposatu aurretik, etxekoek egiten ari garenaz informazioa izatea beharrezkoa da, ariketa honek zentzua izan dezan eta lortu nahi ditugun emaitzak egokiak izan daitezen.

Asteburuan etxekoekin hirian zehar bueltatxo bat ematea proposatuko zaie eta leku ezberdinak aztertzea: lantegi inguruak, auzo ezberdinak, aisialdirako espazioak, e.a.

Leku bakoitzaren berezitasunez hitzegin dezakete, ondo zaindutakoez, zikina-goez, jende asko elkartzen den hainbat lekuren egoeraz (kale berezi batzuk

adibidez), non ikusi dituzten tokirik desatseguenak eta zergatik, politenak zeintzuk diren eta zer zegoen bertan,... horrekin guztiarekin hainbat bitxikeria beha eta konta dezakete.

Astlehenean talde handian komentatuko da egindakoa eta gai ezberdinak tratatzeko balio handikoa izango da ekintza hau: nortzuekin joan den, aisialdia, herriko arazoak, etxekoekin hitzegindakoa, iritzi ezberdinak, e.a.

Materiala Ez da ezer berezirik behar.

HAUEK BAI ZIKINAK! _____ 12. ariketa

Ekintza Fitxa.

Jarduera Taldean komentatu ondoren, bakarkako lana.

Helburua Ohitura batzuk aztertu ondoren taldeko zein bakarkako konpromisoa hartzea.

Garapena Jendearen ohitura batzuk erakusten dituen fitxa da. Marrazki horiek denon artean komentatuko ditugu eta gure herrian antzerako egoerak ematen diren ala ez galdetuko diegu.

Taldean honetaz hitzegin ondoren, bakoitzak bere fitxan zuriz dagoen koadroa betetzea eskatuko zaie, pertsona horiek egin behar luketena adieraziz.

Ume bakoitzak koadro horretan adierazitakoa besteei azalduko die eta denon artean sortutako ideiak bateratuko dira. Ondoren gu, pertsona eta talde bezala, gure konpromiso txikiak hartzen ahaleginduko gara. Hartutako akordioak marrazkien bidez denok ondo ikusiko dugun toki batetan jar ditzakegu. Denbora pasa ahala, betetzen ditugun ala ez denon artean ebaluatzen joango gara.

Materiala Ikasleen materialean "Hauek bai zikinak" deituriko fitxa. 39. orrialdean.

Akordioen marrazkiak egiteko beharrekkoa, papera, margoak, e.a.



KAZETARIAK GARA _____ 13. ariketa

Ekintza Elkarrikketa.

Jarduera Talde handian.

Helburuak Kale garbitzaile eta zarama biltzaileen lana ezagutu eta baloratzea.

Pertsona hauen lana hiriarentzat eta biztanle guztiontzat zerbitzu oso premiazkoa dela ulertzea.

Zaborrak jarraitzen duen bidez lehen hausnarketak egitea.

Garapena Korroan gaudenean asmakizun edo galderak planteatu ditzakegu gure hondakinek ze bide jarraitzen duten argitzeko eta orain arte landutakoa finkatzen joateko. Ikasleek hipotesi ezberdinak egingo dituzte eta ideia ezberdinak aterako dira beraien iritzietatik.

Umeek seguru aipatuko dituztela zarama biltzaileak, erabiltzen dituzten tresnak, garraioak, e.a. Guk lan hori egiten duen pertsona bati elkarrikketa egitea proposatuko diegu, kazetari bihurtuz. Gelara etorriko den pertsonari zer galdetuko diogun denon artean prestatzen hasiko gara.

Ikasleen artean motibazioa eta giroketa lana garrantzitsua izango da, zer egiten duten kazetariak galdetu, ze tresna beharko dugun pentsatu, nola egingo ditugun galderak, nork, e.a. beraien ideiekin osatuz. Hona hemen galdera batzuk adibide gisa:

- Noiz biltzen dituzte ikastetxeko zaborrak? /Eta etxeetakoak? Zelan antolatzen da bilketa gure herrian? Badago momentu berezi bat zaborrak uzteko ala kontenedoreetan edozein momentutan utzi daitezke? Lan zaila ala erraza da? Atsegina ala desatsegina? Zer da gutxien gustatzen zaiena bere lanbidetik?

- Aurretiaz, etxekoei galdetzea ere eskatuko zaie (noiz ateratzen dira honda-kinak etxetik?, nork ateratzen ditu?, nora eraman?, e.a. eta gelan etxekoen azalpenak kontatu).

Materiala Argazki edo bideo kamara, grabagailua.

Oharra Pertsona horiek elkarriketatzea zaila egiten bazaigu, eskolako atezain edo garbitasuneko langileekin buru daiteke elkarriketa hau.

BEGIRA ZER GERTATU DEN! _____ 14. ariketa

Ekintza Fitxa.

Jarduera Bakarkako lana.

Helburua Jokabide desegoki batzuek duten eraginaz jabetzea.

Garapena Fitxa honetan bi bineta agertzen dira.

Marrazkian agertzen dena denon artean behatu eta komentatuko dugu, guztiek ondo ulertu dutela ikusi arte. Ondoren, hutsik dagoen koadroa marraztea eskatuko diegu, beraien ustez arazoa zelan amaitu den azalduz.

Bukatzerakoan, bakoitzak pentsatu duena taldean kontatuko du, eta berriro halako egoerarik gerta ez dadin, egin beharko litzatekenaz ere guztion artean komentatuko dugu.

Materiala Ikasleen materialean, "Begira zer gertatu den" izenburua daraman fitxa. 40. orrialdean.



arazoak aztertzen,... NOLA BIZI GARA?

ZARATA



ATSEGINA ALA DESATSEGINA? _____ 15. ariketa

Ekintzak Zarataren inguruko ariketa ezberdinak.

Jarduera Talde handia.

Helburuak Hirian sortzen den zarataz ohartzea.

Zaratak eta soinuak bereiztea.

Zaratak osasunean izan dezakeen eraginaz ohartzea.

Garapena Talde handian gaudenean ariketa ezberdinak egingo ditugu.

- Korroan gaudela ixil-ixilik geratuko gara une batez eta entzun ditugun zaratak bereiztu eta izendatuko ditugu ondoren. Guretzat atseginak eta desatseginak direnak aipatuko ditugu eta soinu eta zarata hitzen esanahiaz adierazpenak eta adibideak jartzen joango gara.
- Jolastokian dagoen zarata grabatu bi momentu ezberdinetan, atsedenaldir denboran eta jolastokia umerik gabe dagoenean. Konparaketak egingo ditugu.
- Irteerak egin baditugu toki horietan dauden zaratak grabatu, gero gelan entzuteko, bereizteko eta bergoratzeko.
- Umeek txandaka grabagailua etxera eraman dezakete eta balkoi edo leihoetan une labur batez grabatzen ipini. Hurrengo goizean gelan entzungo dugu eta dauden zaratak bereizten saiatuko gara (trafikotik, lantegietatik, jendearengandik datozela,...). Grabagailua ume bakoitzak bere etxera eramatea interesgarria izango da, bakoitza bizi den tokia, grabatu duen ordua, eta abarren araber entzungo ditugun zaratak oso ezberdinak eta adierazgarriak izan daitezkeelako.
- Zarata eta osasuna: zer da osasuntsuagoa?

Kontrasteekin jolasten:

- Denok ixilik gaudenean pertsona batek bakarrik hitzegingo du baju-baju; hasieran ezingo dugu entzun esaten ari zaiguna, tonua igotzen joan beharko da denok entzun arte.
- Aurreko ariketan bezala baina bi edo hiru pertsona batera hitzegiten ari direla.
- Talde erdia ixilik egongo da eta beste taldekideak denok batera hitzegiten hasiko dira. Ulertzen al dugu zerbait? Tonua igotzearekin konpontzen al da arazoa? Atsegina al da horrela denbora luzez egotea? Halako egoerak gertatzen al dira gure gelan? Noiz?
- Kaset bat erabiliz musikarekin ere jolas daiteke. Oso altu jarri eta zer sentitzen dugun, tonua jeitsi eta ea gustorago gauden, mugikorra eta lasaia konparatu, eta sentipen horiek modu ezberdinez adierazi.
- Dramatizazio laburrak: lo egin nahi duen pertsona batek zaratekin dituen arazoak; lan ezberdinetan dauden zaraten imitazioak egingo ditugu (lante-giak, obrak,...).

Materiala Grabagailua.

MUSIKA ETA ZARATEKIN JOLASTEN _____ **16. ariketa**

Ekintza Psikomotrizitateko saioa.

Jarduera Talde handia.

Helburua Zaratek eta soinuek norberarengan sortzen dituzten sentazioak gorputzaren bidez adieraztea.

Garapena Psikomotrizitate saioak aprobeztatzuz ariketa ezberdinak egin ditzakegu:

- Musika bizkor bat nahiko altu jarriko dugu eta hori entzuten duten bitartean korrika mugitzen ibiliko dira espazio guztia hartuz; baina edozein momentutan musikaren tonua jeitsi egingo da eta orduan poliki eta lasai ibili beharko dira erlajatuz.
- Aurreko ekintzak burutzeko grabaturik ditugun zaratekin jolastuko dugu. Kaseteen entzuten duguna imitatuko dugu, adibidez kotxe baten zarata entzuten badugu kotxean mugitzen ari garenona egingo dugu edo txoriak entzuten baditugu txoriak bagina bezala hegaz hasiko gara.

Materiala Kaseta eta zintak.



**beste izaki bizidun batzuk ezagutzen,...
NORTZUK BIZI GARA?**

GOAZEN PARKERA JOLASTERA _____ **17. ariketa**

Ekintza Herri edo hiriko naturgune batera irtetzea.

Jarduera Talde osoa.

Helburuak Herrian ditugun naturguneak ezagutzea.

Toki horretako aniztasunaz ohartzea.

Naturan taldekideekin batera disfrutatzea.

Garapena Herriko parke batera irteera egitea proposatuko diegu ikasleei eta denon artean bertara joateko beharko duguna antolatuko dugu: lekua, eguna, egingo den ibilbideaz hitzegingo dugu, zeharkatuko ditugun lekuak eta aurki ditzakegun arriskuak aurrikusi, lagunduko gaituzten pertsonekin harremanetan jarri, bete beharreko arauak argitu eta adostu, eta bertan egingo dugunaz hitzegingo da.

Hori guztia antolatu ondoren, eta erabakitako tokira iristerakoan, giroa lasaitu arte itxarotea komeniko zaigu lanean hasi aurretik. Hasiera batean behaketa orokorrak egin ditzakegu, nolakoa den lekua, zuhaitzak dauden, nolakoak diren, landare eta loreak behatu, animaliak ikusten diren ala ez, non izkutatzen diren, txukun eta zainduta dagoen toki hori ala zikina eta hondakinak dauden, e.a.

Honetaz guztiaz hitzegin ondoren jolas ezberdinak proposa ditzakegu. Hona hemen adibide batzuk:

- Zarata eta soinu ezberdinak bereizten: Borobilean eserita, entzuten diren soinu ezberdinak bereizten saiatu. Zeintzuk izan daitezkeen parke barruan ematen diren zaratak (txoriak, txakurrak,...) eta zeintzuk kanpotik datozenak (kotxeak, sirenak,...).
- Koloreak bereizten: Borobilean eserita, irakasleak zein ikasleak txandakatuz, kolore bat esan eta besteek, leku horretan esandako kolorea duten gauzen izenak esan.
- Mugimendu jolasa: Zer egiten dute animaliek? Pertsona batek esaten du "zaldia saltoka" eta taldeak zaldiek bezala korrika eta saltoka egingo dute; "txoriak hegaz" eta guztiak txoriak bezala hegaz hasiko dira. Animalien izena eta mugimendua aldatzen joango gara. Ustekabean irakasleak agindua oker eman dezake, adibidez "arrainak hegaz", orduan umeak geldirik geratu beharko dute.
- Mugimendu jolasa: Gauza ezberdinak ukitzen. Pertsona batek beste bati galdetuko dio, "zer ukitu duzu?", eta besteak nahi duena erantzungo dio, adibidez, "harriak ukitu ditut". Orduan talde osoak harriak ukitzera mugitu beharko du. Galdera-erantzunak ahalik eta azkarren egitea komeni da. Oso nekatuta bukatuko dugunez, eseri, etzan eta lasaitzea oso ondo etorriko zaigu. Belarretan bada, txinurrien eta beste animalia txikien zaratak entzuten saiatu behar dugula esan, txorien kankak entzun, hostoak haizeak mugitzen dituen ala ez ikusi, e.a.
- Ikertzaileen jolasa: Ikertzaileak gairela esan ondoren, parkean edo gauden toki horretan animalia zein pertsonentzat dauden arriskuak ikertu behar ditugula adieraziko zaie. Ikasleek arriskuak topatzen doazen neurrian, aurkikuntzaz gehiago pentsatzea eskatuko zaie galderen bidez: zergatik da arriskutsua, nozentzat (animalia, landare edo pertsona), zer egin beharko genuke konpontzeko, e.a. Seguru umeek hainbat arrazonamendu emango dizkigutela beraiek pentsatzen dutena baieztatzeko. Jolasak gelako lanean jarraitzeko aukerak ere eskeinitako dizkigu, adibidez, konponbideak bilatzen hasten bagara, posible izango zaigu parkeko arduradunei gure behaketaren emaitzak helaraztea.

Oharra Irteeran bere kabuz jolasten egoteko denbora ere utzi beharko genuke. Gelaz kanpo ematen den giroa ezagutzeko, beraien arteko harremanak eta jokabideak aztertzeko, naturarekiko sentiberatasuna eta jakinmina pizteko oso egokia izango zaigu eta.

Materiala Argazki edo bideo kamara eramatea oso ondo etorriko zaigu, egindakoa eta pasatutako une horiek gelan bergoratzeko.

ZENBAT BIZTANLE GURE HERRIAN! _____ 18. ariketa

Ekintza Hiriko irudiak behatu eta aztertu.

Jarduera Talde handia.

Helburuak Hiriko biztanle ezberdinak ezagutzea (animalia, landare eta pertsonak).

Animalia eta landareen egoera aztertzea.

Pertsonen lanbideez hitzegitea bakoitzaren betekizunaren garrantziaz ohartuz.

Aniztasunaren garrantziaz eta aberasgarritasunaz jabetzen hastea.

Garapena Korroan gaudela, hiriaren inguruko marrazkiak behatuko ditugu (karpeta honen atzekaldean aurki ditzakezue). Bertan hiriko hainbat elementu ezberdin

agertzen direnez, egun ezberdinetan behatu eta puntu ezberdinak komentatzea egokia izango da.

Marrazki hauek aprobetxatuz hainbat azalpen eta komentario sortuko dira taldean eta bertatik ekintza ezberdinak bidera ditzakegu, adibidez:

- Lanbide ezberdinak: herri/hiriaren funtzionamendu egokirako beharrezkoak diren hainbat lan asmatzen ahalegindu.
- Gelako umeen gurasoen lanak zeintzuk diren eta zertarako diren onuragarriak, zein mesede sortzen duten guztion bizitzarako aztertu.
- Hiria, herrialde ezberdinetatik etorritako biztanlegoa elkartzen den ingurutzat tratatu eta honekin batera herrialde ezberdinetako jendea eta ezaugarrietaz hitzegitea. Gai hau nahi beste sakondu daiteke, horretarako aukera ezberdin asko izan ditzakegularik, ohitura ezberdinak ezagutuz, jantziak, hizkuntzak, e.a.
- Animaliak eta landareak: zein esparru betetzen duten ikusi, marrazkietan agertzen direnak aztertuz edo/eta beraiek ezagutzen dutenetik abiatuz; zein proportzio uzten zaien animalia eta landareei eta zein espazio betetzen den pertsonen beharrak asetzeko; egoera hau hobetzeko beraiek zer egingo luketen galdetu eta proposamen berriak egin, adierazpen mota ezberdinak erabiliz; e.a.

Ematen dizkiegun azalpenetan kontutan izan beharko dugu izaki bizidunen artean dagoen aniztasuna, eta normalean lantzen ez ditugun animalia eta landareez ere hitzegin beharko genukeela: intsektuak, arrainak, anfibioak, basalandareak, bertako landareak, etabar.

Irudiaren elementuak eta bertan agertzen diren erlazioak ondo aztertu ondoren, galdera hau planteatu daiteke:

Zer egin dezakegu gure herri edo/eta hirietan guztiok (animalia, landare zein pertsona) hobeto bizitzeko?

Gure ikasleen ideiak paperean jasoko ditugu. Horietatik ekintza mordo bat sor daitezkeen arren, guztiak betetzea seguraski zaila egingo zaigu eta beraiekin batera gure esku dagoenaz hitzegin eta adostu beharko dugu.

Idea hau hartuta, planteatzen da ondorengo atala, "Gure neurriko konponbideak" deiturikoa, eta bertan gure inguru hurbilena hobetzeko etxetik eta eskolatik egin daitezken lan errazak aurkituko dituzue.

Materiala Irudiak (karpeta honen atzekaldean)



Ekintza Landareez espazioak hornitu.

Jarduera Talde osoak.

Helburua Ikastetxeko espazioak hobetzeko jarduerak burutzea.

Garapena Gelan eta pasiloetan zehar landareak jarriko ditugu. Era askotara antola daiteke ekintza hau:

Etxetik bakoitzak ekar dezake landare bat, eta taldeari azalduko dio bere izena eta egoki bizitzeko beharrak: kanpoan jartzeko den ala barrukoa, noiz eta nolako loreak dituen, bere etxean non daukaten, e.a.

Gelan bertan mintegiak prestatu: berrerabili daitezken hainbat materialekin (arraindegietako kutxak, tetrabrik ontziak, beirazko ontziak, e.a.) mintegi txikiak presta ditzakegu gelan bertan. Haziak erein eta nola hasten diren beha dezakegu denboran zehar. Lan hau oso interesgarria da umeekin burutzeko, baina kontutan izan beharko dugu luzeegia ere egin daitekeela erein dugun

landarearen arabera.

Egokiena aurreko proposamen biak batera burutzea litzateke, tartekatuz.

Landareen zainketa antolatu beharko dugu, ume guztiek berauen ardura izan dezaten.

Materiala Etiketarikarritako landare eta lorontziak, mintegiak prestatzeko kutxak, landare aldaskak, ureztatze tresna egokiak, e.a.

LURRA ABERASTEKO, KONPOSTA _____ 20. ariketa

Ekintza Konposta egitea.

Jarduera Talde txikietan.

Helburuak Hondakin organikoen balioa ezagutzea.

Lurrean "zerbait" gertatzen dela konturatzea. (Beraiek ezingo dute ulertu prozesua baina zerbait gertatzen dela ikusi ahal izango dute).

Konposta hitza ezagutzen hastea eta esanahiaren lehen ideia hartzea.

Ura eta airearen beharra prozesu horretan.

Garapena Nola egingo dugu?

- 1- Lorontziaren laurdena lurrez bete eta ondoren janari hondakinak bota, lorontziaren erdiraino (koipe asko duten janariak, esnekiak edo haragin hondakinak ez).
- 2- Nahasketa lur geruza fin batez estali, usainik bota ez dezan eta intsekturik erakar ez ditzan.
- 3- Lorontzia kanpoaldean ipini, balkoi, jolastokiaren ertz batean,...
- 4- Lorontzia zabor poltsarekin estali.
- 5- Aldiro (2 edo 3 egun), pala batez lorontziaren edukina nahastu, bueltak eman honela nahasketak behar duen airea hartuko du eta. Lan hau egiten ari garenean, ura bota, lurrak hezetasuna behar du, ez gehiegi: hezea mantentzeko beste.
- 6- Janari hondakinak ongarri bihurtuko dira piskanaka. Hondakin guztiak desagertu direnean, lur hori landareentzat oso aproposa izango da.
- 7- Gustoko duzuen landare bat landatu eta nola hasten den ikusi!

Materiala Talde bakoitzarentzat:

- Lorontzi handi bat.
- Ontzia erdiraino betetzeko lurra.
- Zamar poltsa handi bat.
- Janari hondakin batzuk: barazki azalak, ogi pusketak, sagar edo entsalada hondakinak,... inoiz ez koipe asko duten hondakinak (esneki edo haragi hondakinak ez).

LANDAREAK HAZI EGITEN DIRA _____ 21. ariketa

Ekintza Dilista eta babarrunak nola hasten diren ikusteko esperimentoa.

Jarduera Talde osoan zein talde txikietan.

Helburuak Landareak izaki bizidun bezala ulertzea.

Landareak elikatu eta hazi egiten dira.

Landareen beharrak: ura, argia, lurra.

Garapena Esperientziarekin hasi aurreko egunean dilistak beratzen ipiniko ditugu. Hurrengo egunean kristalezko ontzietan kotoia sartuko dugu. Ondoren kotoi eta ontziaren paretaren kontra haziak sartuko ditugu (2 edo 3) eta pixkanaka

kotoia urez bustitzen joango gara. Hezetasun neurria hartu duenean toki apropos baten utz daiteke ontzia.

Hurrengo egunetan kotoia hezea dagoela ziurtatu behar dugu. Lehortzen bada ur gehiago bota.

Egun gutxi barru hazia irekitzen hasten da eta sustrai txiki bat irtetzen zaio kimuarekin batera. Gehiago hasten denean lorontzi edo beste kutxa baten landa dezakegu eta gure ikasleek nola hasten den ikusiko dute.

Ariketa berdina indaba edo babarrunekin egin dezakegu.

Esperimentoaren prozedura eta gertaerak ondo gogoratzeko, pauso bakoitza burutu ahala umeez, egindakoa paperera pasatzea komeni da eta horixe eskatuko zaie. Honekin material ona lortuko dugu, egindakoa pausoz pauso gogoratzeko, gertatutako bitxikeriak, zalantzak edo arazoak bertan isladaturik geratuko direlarik.

- Materiala** - Kristalezko ontziak.
 - Kotoia.
 - Dilistak edo babarrunak.
 - Ura.

LANDAREEK ERE URA BEHAR DUTE _____ 22. ariketa

Ekintza Urarekin egiteko esperimentoa.

Jarduera Talde handian.

Helburuak Landareak nola elikatzen diren.

Ura, lurra eta airea kutsatzen (zikintzen) baditugu, landare horiek ere kutsatu egiten dira.

Osasun arazoak, bai landare bai beste izaki bizidunentzat.

Garapena Kristalezko ontzia urez bete eta bertara kolorante tanta batzuk botako ditugu. Ur hori kutsatua geratu dela esango diegu. Horretaz hitzegin ondoren apioa bertan sartuko dugu. Ordu batzuk utzi behar ditugu gertatzen dena ikusteko. Denbora hori pasa ondoren, apioa hartu eta zurtaina moztuko diogu, ur kutsatu hori zurtointetik gora nola igo den ikusiz.



- Materiala** - Kristalezko ontzia.
 - Apioa hosto eta guzti.
 - Janarientzat kolorante urdin edo gorria.

HAU BAI JOLASTOKI DOTOREA _____ 23. ariketa

Ekintza Jolastokien hobekuntza.

Jarduera Talde osoak.

Helburua Jolastokia hobetzeko aukerak aztertzea eta ahal dugun neurrian hobekuntza horiek burutzea.

Garapena Jolastokia hutsik dagoen une bat aprobetxatuz, gure taldearekin bertara joan eta denon artean behaketak egingo ditugu eta hobetzeko ze aukera ematen digun aztertu.

Ikastetxe bakoitzean aukerak eta arazoak ezberdinak izan daitezke:

Berdegunerik ez dugun kasuetan, posible izan daiteke leku ezberdinetan lorontzi handiak ipintzea (margotzaileek erabiltzen dituzten pote handi horiek ondo garbitu eta apaindu ondoren adibidez) eta modu honetan jolastokian zehar txoko eta funtzio ezberdina beteko duten espazioak eratu.

Fatxada baten kontra horma txiki bat eraikitzea (harriz eta adreiluz egindakoa, lur piskat tarteetan sartuz), bertan animalia txikiak eta landareak bizitzeko adibidez.

Beste ikastetxe batzuetan berdeguneak izango ditugu baina beharbada txarto

zaindutakoak edo zikinak, eta hauetan berreskuratze lan errazak egin ditzakegu, belarra, lore eta bulboak landatu adibidez. Guretzat baino lan zailagoak aurrikusten baditugu, guraso edo helduen laguntza ere eska dezakegu.

Materiala - Lorontziak.

- Hazi eta landare ezberdinak.
- Horma txikiak eraikitzeko, harriak eta adreiluak.
- Lurra.

TXORIAK GURE AUZOKIDEAK _____ 24. ariketa

Ekintza Txorientzat habiak.

Jarduera Talde osoak.

Helburua Txoriei gure inguruan bizitzeko tokia eskeintzea.

Garapena Txoriak beraiek egindako habietan bizi direla ezagutzea nahi dugu, baina hiri askotan geroz eta espazio gutxiago dutela jakinez (zuhaitz eta zuhaixka gutxi daudelako, denboraldi batzuetan kanpotik negua pasatzera beste hegazti batzuk etortzen direlako, e.a.), guk arazoa konpontzen lagun dezakegula ere ikusiko dugu. Gure jolastokia, habiak eta bainuak hartzeko lekuak jarritz gero, leku aproposa izan daiteke beraientzat eta guk asko disfrutatuko dugu.

Habiak egiteko prozedura erraz bat planteatzen da ondoren:

0- Tetrabrik kutxak lortu.

1- Kutxaren goiko aldean ondo ireki eta kutxa ondo garbituko dugu.

2- Goitik hasita 5 zentimetrora zulo bat egingo dugu (hori etxeko atea izango da).

3- Kutxaren beste aldean bi zulo egingo ditugu bertatik alanbrea pasatu eta zuhaitzetik zintzilikatzeko.

4- Kutxa barruan txorientzat "ohea" egingo dugu, belar lehorra, adar txikiak, oinarri leun bat lortuz.

5- Kutxa berriro itxi egingo dugu, enbalatzeko zintaz ondo lotuz (ez dadila apurtu eta gure txoriak uxatu).

6- Toki aproposa bilatu beharko diogu habiari, guk ikusteko modukoa baina piztiak helduko ez diren lekua (teilatu azpia, poste bat, zuhaitza,...).

7- Jartzeko orduan, kontuan hartu ahalik eta tinkoen geratu behar dela, ondo eutsi eror ez dadin.

8- Habia txoriren batek hartu duen ala ez behatu eta hori gertatzen denean ondo pasa bere irteera eta sarrerak zainduz.

Materiala - Kutxa hutsa.

- Guraizeak.
- Metro erdiko zati bat alanbre fin (tolesteko erraza dena).
- Iltzeak eta mailua.
- Enbalatzeko zinta (gogorra).

ZEREZ EGITEN DITUZTE HABIAK? _____ 25. ariketa

Ekintza Habiak zerez egiten dituzten ezagutzeko esperimentoa.

Jarduera Talde handian eta txikian.

Helburua Udaberrian txoriek beraien habiak egiteko erabiltzen dituzten materialak ezagutzea.

Naturatik hartzen dituzten materialez aparte (belarrak, adarrak, lurra, e.a.), beste batzuk aurkituz gero ere, beraientzat gustokoak izaten direla jakitea eta frogatzea.

Garapena 1- Pertxa erronbo forman tolestuko dugu.

2- Erronbo hori saredun poltsa barruan ondo sartu eta lotuko dugu.



- 3- Oihal zati txikiak, artilea, haria,... sartuko ditugu sarean zehar.
- 4- Pertxa hori zuhaitz baten adarrean edo poste batean,... zintzilikatuko dugu (ondo lotu, eror ez dadin).
- 5- Egun batzuk pasa ondoren guk utzitako materialak erabili dituzten ala ez behatuko dugu.



Materiala - Alanbrezko pertxa bat.
 - Poltsa saredun bat (laranja poltsa, kipula poltsa,...).
 - Material ezberdinen zatiak.

ETA ZER JATEN DUTE? _____ 26. ariketa

Ekintza Txorientzat janaria prestatzea.

Jarduera Taldeka eta bakarka.

Helburuak Txoriek gustoko dituzten janariak ezagutzea eta prestatzea.

Garapena Txoriek zer jaten duten ikustea proposatuko diegu umeei. Horretarako etxetik ekar ditzaketen jaki batzuen zerrenda egin dezakegu (ogi soberakinak, gailetak, fruitu lehorrak, e.a.), umeen ustez txorientzat aproposak izan daitezkeenak.

Jolastokiko leku konkreturen bat aukeratuko dugu janari horiek uzteko. Ondo zehaztu umeei zein izango den.

Ideia batzuk aurkezten zaizkizue ondoren:

- Azal eta guzti, kakahueteak hari batetik zintzilikatuko ditugu zuhaitz edo zuhaixka batean. Seguru aurkituko dituztela.
- Jolastokiaren ertz batean ogi mamia utz dezakegu. Berehala aurkitu eta jango dute.
- Laranja azala ere oso gustoko dute. Hauek ere zuhaitzetatik zintzilika ditzakegu.
- Pipak eta hainbat hazi ere jar daitezke jolastokian zehar.
- Janari horiek uzteko estalitako guneak ere presta ditzakegu, etxetxo antzera.



Materiala Janari ezberdinak.

BAINU EDERRA _____ 27. ariketa

Ekintza Hegaztientzat bainu tokiak prestatzea.

Jarduera Talde txikietan zein handian.

Helburuak Txorien beharrak ezagutzea eta beraiek behatzen disfrutatzea.

Izaki bizidunentzat uraren garrantzia ezagutzea.

Txorien beharrak eta arazoez kezka sortzea.


Izaki bizidunenganako sentiberatasuna lantzea.

Garapena Zeramika edo plastikozko plater edo ontzi zabalak lortu beharko ditugu, zenbat eta zabalagoak hobeto, gehiago disfrutatuko dute eta; ez daitezela metalzkoak izan (udan gehiegi berotu eta neguan hoztu egingo lirateke).

Bost edo sei zentimetro urez beteko ditugu. Ontziek beti ura dutela ziurtatu beharko dugu eta horretarako taldea antolatu beharko dugu, arduradunak txandakatuz. Neguan ura izozten ez zaigula ziurtatzea eta zaintzea ere beharrezkoa izango da.

Hurrengo lana toki egoki bat bilatzea izango da. Ahal izanez gero gelatik ondo ikus daitezkeen lekua aukeratuko dugu, txoriak molestatu gabe behatzea posible den lekua. Eta ez ahaztu izutuko dituen animaliarik gabeko tokia izan behar duela.

Materiala Zeramika edo plastikozko ontziak eta ura.



egindakoa komunikatzen... KOMUNIKAZIORAKO EKINTZAK



Atal honetan proposatzen diren ekintzen helburua, gai honetaz egindako lanen bilduma, laburpen eta bergogorapena da. Gelan egindakoa oso komenigarria da beste pertsona (eskolako edo kanpoko) batzuei aditzera ematea, jasotako informazioak ere besteekin elkartrukatzea, hori guztia burutzeko hainbat tresna eta metodo erabil daitezkeelarik.

Ekintza ezberdinei lotura bat ematea oso erraza egingo zaigu jai bat antolatzearen aitzakiarekin, beraz horixe da proposatu eta antolatzen has gaitezkeena, **gelako jaia**.

JAI BAT ANTOLATZEN _____ 28. ariketa

Ekintza Jai baten antolaketa.

Jarduera Talde osoa.

Helburuak Talde osoak ekintza honen antolaketa prestatu eta burutzea.

Guraso eta beste eskolakideekin ekintza bateratuak burutuz disfrutatzea.

Ardurak banatzea eta berauekiko erantzukizuna lantzea.

Garapena Jai bat egitea proposatuko diegu ikasleei, ikasi eta egin ditugun hainbat lan guraso eta lankideei erakusteko. Beraien gustoko ekintza izango da. Hasiera batetik hainbat arlo ondo prestatu behar direla adieraziko diegu eta denon artean kontutan izan beharko ditugun egitekoak zeintzuk izango diren pentsatu eta antolatzen hasi beharko dugu.

Unitatean zehar egindako ekintzen bilduma izan daiteke jai hau, gaiari momentuz bukaera emango diona. Hona hemen ideia eta proposamen batzuk:

Antzezpena _____ 29. ariketa

Ekintza Ipuinaren dramatizazioa.

Jarduera Bakarka txotxongiloak egin eta taldeka emanaldia prestatu.

Helburua Ikasitakoa besteei komunikatu; adierazpen mota ezberdinak erabili.

Garapena: Ikasitako ipuinaren antzezpena egingo dugu. Guztien artean antzezpen saio honen gidoia presta daiteke, ipuinean ikasi genuena gogoratuz eta besteei azaldu nahi diegun mezua zehaztuz. Guztiok gidoi hori ikasi eta entseiatuko dugu ikasleak taldeka banatuz.

Materiala Ipuineko pertsonaien marrazkiak. 41. orrialdean.



Zenbat lan egin dugun _____ 30. ariketa

Ekintza Bideo emanaldia edo/eta argazki erakusketa. Espazio ezberdinetan egin ditugun hobekuntza lanak gurasoei erakustea.

Jarduera Talde osoa.

Helburuak Espazio ezberdinetan egin ditugun hobekuntza lanak gurasoei erakustea.

Egindakoa bergogoratzea.

Garapena Lan honetan zehar egin ditugun hainbat ekintza guraso eta beste ikasleei erakustea nahi dugu.

Ekintza horiek bideoz grabatuta baldin badaude baliabide egokia izango dugu adierazpen horretarako. Bestela prozesuan zehar ateratako argazkiekin erakusketa bat egin daiteke eta umeek ikusten dutena komenta dezakete: zer egin zen, non, nortzuek eta nola, zergatik egin zuten. Argazki bakoitzaren azpian denon artean adostutako esaldi adierazgarri bat jarriko dugu.

Eskolako espazio ezberdinetan egin ditugun lanak ere erakustea komeniko litzateke eta horretarako ibilbide bat antola daiteke: animaliei laguntzeko egindako lanak (jantokiak ikusi, bainutokiak, jolastokian zehar ipinitako habiak erakutsi,...) eta landareekin egindakoak (mintegiak, landaketak,...).

Materiala Bideo zinta edo/eta argazkiak.

Gela apaindu eta antolatzen _____ 31. ariketa

Ekintza Jai egunerako espazioa prestatzea.

Jarduera Talde handia edo/eta txikian.

Helburua Behar berezien arabera espazioaren antolaketa ezberdinen beharra ikustea.

Apainketa lanak burutzea.

Garapena Jai honetara etorriko diren pertsonen harrera egiteko espazioak apaindu eta prestatuko ditugu. Ikasleekin talde handian gaudenean eta festa hau burutzeko beharko dugunaz hitzegitean tratatu beharreko beste puntu bat izango da hau. Ikus dezatela egitarauaren arabera (txotxongilo saioa, bideo emanaldia, erakusketa,...) espazioak modu batez edo beste batez prestatu beharko direla eta etorriko den jende kopuruak ere zerikusia duela. Honez gain, espazio horien apainketarako ere zerbait berezia egitea pentsa eta antola dezakegu, jai eta festa kutsua emateko.

Materiala Unitatean zehar egindako ikasleen lanak edo bereziki espazioak apaintzeko egin daitezkeenak.

Gonbidapenak egiten _____ 32. ariketa

Ekintza Festarako gonbidapenak egitea.

Jarduera Talde handian eta bakarka.

Helburua Informazioa emateko adierazpen mota ezberdinak erabiltzea.

Garapena Guztion artean jaira nortzuk gonbidatu nahi ditugun pentsatuko dugu eta ondoren egin nahi duguna nola adieraziko diegun erabakiko da. Bakoitzarentzat gonbidapen txartel bat bidaltzea izan daiteke aukera bat eta hau nola egingo dugun antolatu beharko dugu. Zenbat egin behar diren, nola egingo ditugun (etxetik ekar ditzakete eredu batzuk), ikasle bakoitzak zenbat egin behar dituen kalkulatu, nola egituratuko diren (jarri behar ditugun datuak, nola apainduko dugun,...).

Materiala Ereduaren arabera, paperak, margoak, eta orokorrean eskulanak egiteko materiala.

Mila esker zure laguntzagatik _____ 33. ariketa

Ekintza Lagundu digutenei eskerrak ematea.

Jarduera Talde handian.

Helburua Ematen diguten laguntza eskertzea.

Garapena Lan honetan zehar lagundu diguten pertsonen eskerrak emateko modua bilatzen ahaleginduko gara denon artean. Gure festara gonbidatuko ditugunez, une hori aprobetxatuko dugu horretarako.

Eskertzeko modu ezberdin asko izan ditzakegula komenta dezakegu, adibide batzuk jarritz eta umeei ideia gehiago eskatuz. Honetaz hitzegin ondoren, guk nola eskertuko ditugun pentsatuko dugu. Taldean sortzen diren ideiak kontutan hartu beharko ditugu eta guztiei egokien iruditzen zaiguna aukeratu: elkarrekin egindako ekintzaren argazki bat oparitu edo taldeak bereziki asmatutako "olerki" bat errezitatu, denon artean osatutako marrazki bat oparitu, e.a.

Materiala Aukeratutakoaren arabera.

Hau konpondu beharra dago! _____ 34. ariketa

Ekintza Konponbideak bilatzen.

Jarduera Talde osoa.

Helburua Arazoak konpontzeko bide ezberdinak ezagutzea.

Bakoitza, bere mailan, arazoen konponketan saiatzea.

Garapena Egindako lan honetan zehar, arazoren bat ikusi edo zerbait hobetzeko aukera/beharra ikusi badugu, konpontzeko bideak zeintzuk izan daitezkeen komenta dezakegu guztion artean. Bide bat, dagokion tokira gertatzen denaren informazioa eta gure proposamen edo eskaria bidaltzea izan daiteke. Adibidez, atera garen parkeko esparruren bat oso txarto ikusi badugu (zikina, arriskutsua,...), dagokion arduraduradunari ohar bat bidal diezaiokegu egoera azalduz eta hobekuntzak proposatuz.

Beste arazo batzuk ikastetxean bertan konpontzekoak izan daitezke eta gurasoei jai honetan gaudela aprobeitza dezakegu, gertatzen dena azaltzeko eta konponketa horietan laguntza eskatzeko.

Materiala Egingo dugunaren arabera, gutunak edo argazkiak erabil ditzakegu.

Lagunduko diguzue? _____ 35. ariketa

Ekintza Jolastokian burutzeko hobekuntzak.

Jarduera Talde handian eta jendearen laguntzaz.

Helburua Jolastokiaren hobekuntza lortzea.

Garapena Honako hau aurreko ekintzarekin lot daiteke. Gure jolastokia girotzea eta atseginagoa egitea lortu nahi da eta horretarako guraso eta beste inguruko heldu batzuei laguntza eskatuko diegu, gehien bat espazio handia bada aukeratutakoa eta erabili beharreko materialak (margoak, disolbatzaileak, lanabesak, e.a.) umeentzat egokiak ez badira. Erraz egin daitezkeen hobekuntza asko proposa daitezke:

- Hormen margoketa: Jolastokiko hormaren bat margotu eta gure naturarekiko zaletasuna auzo eta gurasoei adierazi eta esparru hori atseginago eta biziago egin.
- Txokoak bereiztea: Adin honetako ikasleek gustoko izaten dituzten txoko ezberdinak presta daitezke, "izkuta" daitezken lekuak (etxe itxurakoak edo umeak barruan sartzeko moduko tutu lodiak,...), animalia txikiak aurki ditzaketen berdeguneak, zirkuito antzerakoak, e.a.
- Eserlekuak ipintzea: Beraien neurriko jarlekuak ipintzea jolastokiko txoko batean lasai egon nahi dutenentzat.
- Jolas tradizionalen margoketa: galduta ditugun hainbat aspaldiko jolas berreskuratze modu egokia izan daiteke lurrean behar diren markak margotzea eta jolasaren prozedura umeei erakustea.

Materiala Ekintzaren arabera, margoak, pintzel edo brotxa lodiak, arropa zaharrak, eta ekintza ahalik eta egokiaren eta arriskurik gabe egiteko aurrikusi beharko ditugunak.

INGURUGIRO HEZKUNTZARAKO MATERIALAK

g u r e h e r r i a



f i t x a k f i t x

fitxak

a k f i t x a k f i

t x a k f i t x a
















k f i t x a k f i t

x a k f i t x a k

PAISAJEA BEHATZEN.

Izena _____

Marka ezazu gurutze batez zauden lekutik ikusten duzuna.



ZER ETA NON?

Izena _____

Lotu gezien bidez zabor mota bakoitza dagokion edukinontziarekin.




fruta-azalak



paperak



pilak



kaxak



botilak





janari-hondarrak



edralontziak





hautsitako ipuinak



HAUEK BAI ZIKINAK!

Izena _____

Esaiezu pertsona hauei zer egin behar duten zaborrekin.



BEGIRA ZER GERTATU DEN!

Izena _____

Zer gertatzen da ondoren?



Izena _____

Margotu, moztu eta jolas ezazu lagun hauekin.

